

9. KOSTUEN EGITUR A

Hainbat koste izango ditugu PDLs enpresan:

Suposatu dugu bateria bat erostea 50€ kostatuko dituela. Gure fabrian egin beharreko aldaketak 20€ izango dira, beraz, guztira, 70€. Koste aldakorra izango da, eskaeraren arabera aldatuko delako.

Fabrian elektrizitatearen autohornikuntza izango dugu, plaka fotoboltaikoei esker. Beraz, ez dugu inolako kosterik izango makinak mugitzeko. Plaka fotoboltaikoak itxi berri duen enpresa bati erosi dizkiogu, horregatik, askoz merkeagoak izan dira.

Gasolindegia zati bat alokatzeko prezioa zehaztu gabe dago eta elektrolinera, gutxi gora behera, 150.000€ kostatuko zaigu montatzea. Beraz, elektrolinera berri bat montatzea oso garestia dela ikusi dugunez, batez ere, hasierako hilabetetarako, Espainiako gasolindegiekin afiliatzea erabaki dugu, horrela hilabetero diru kantitate bat ordainduko diegu gure zerbitzua han jartzearen truke (alokatzeko prezioa zehaztu gabe dago, gasolindegia eta kokatuta dagoen lekuaren arabera izango da)

Hainbat langile ditugunez, hilabetero haien soldata ordaintzea 12.000€ guztira ordaintzea kostatuko zaigu.

Elektrizitatearen kostua ez da oso handia izango, aurretik aipatutako plaka fotoboltaikoak jarriko ditugulako bateriak berriz kargatzeko.

Sestaoko bulegoa alokatzea ez zaigu dirurik suposatuko, enpresaren jabeetako batena delako. Beraz, handik administrazioa egingo dugu. Horretarako hainbat kostu izango ditugu, hala nola, I.P.E. guztia ordaintzea 3000€ inguru izango da, horrela 8 ordenagailu eta inprimagailu lortuko ditugu fakturak imprimatzeko.

Azkenik garraioen gastua dago. Hau ere oraindik zehaztu gabe dago, kamioi berriak erosi beharrean beste enpresa batek salduko dizkigulako askoz merkeago.

Bezeroek ez dute ezer pagatu behar izango bateria aldatzeko momentuan, hilean harpidetza ordainduko dutelako. Horrela, behar dituzten aldaketa guztiak egin ahal izango dituzte hilero eta ekonomikoa izango da kilometro asko egin behar dituztenentzat.

Errentagarritasuna kalkulatzearen ondorioz, 100€ hilero ordaintzea egokia iruditu zaigu. Urte osorako bonoa nahi izanez gero, 1.000€ izango dira.

Beraz, kostu guztiak aipatu ondoren, 2 kostu mota daudela ikus daiteke:

★ **KOSTE FINKOAK** (beti berdin kostatuko duelako): Gasolindegia alokatzea, bulegoko ura, argia, telefono zerbitzua, estatuari ordaindu beharreko zergak... Kostu hauek baita ere zuzenak izango dira, zuzenean ordainduko ditugulako.

★ **KOSTE ALDAKORRAK**: langileen soldatak, bateriak fabrikatzeko prezioa, materialak, beste motatako gastuak (makina konpontzea, publizitatea...)..